

sociedad

gipuzkoa

sociedad@noticiasdegipuzkoa.com

KILOMETROAK 2009 >

Zurriola ikastetxearen deiarri jarraituz, milaka eta milaka lagun bildu ziren atzo Donostian, Gipuzkoako ikastolen festan. Ibilbidea txiki geratu zen beste behin, adin eta izaera ezberdinetako jende uholdearen ondorioz. **TESTUA Joseba Imaz ARGAZKIAK Iker Azurmendi**

MUNDU ZABAL BAT

ELKARRI eskutik emanda, 10.000ak aldera ttipi-tpapa zihozzen Xabier, Iker eta Ane. Zirkuitoa zabaldua zegoen ordurako. “Ama lanean utzi dugu eta goizean goiz etorri gara. Ea ibilbide osoa egiten dugun”, azaldu zuen lehenak, Xabier Rodriguezek. Animotsu ageri zen oriotarra, “urteroko ohiturari jarraituz” Gipuzkoako ikastolen festara seme-alabekin iritsi berritan. “Txan magoa ikustera goaz”, osatu zuen Iker txikiak, aurtengo ekitaldiko pegatina urdinxka paparrean zuela. “Agur!” oihiu egin eta bosgarren gunerako bidea jarraitu zuten, kontent.

Xabier, Iker eta Anek bezalatsu, milaka lagunek erantzun zioten atzo Zurriola ikastolak botatako demari *-(H)ireki(n) mundura-* eta Donostiako Gros auzoko kale eta plazak jendez gainezka jarri zituzten, Kilometroak festaren 33. edizioan. Eguzkia lagun, hainbeste euskaltzale gerturatu ziren Gipuzkoako ikastolen jaialdira, eguneko zenbait unetan ibilbidea txiki geratu zela. Musika, jana, edana eta, batez ere, ondo pasatzeko aukera ederki aprobetxatu zuten guztiek, euskararen aldeko aldarria festarekin uztartuz.

Mundu zabal bat elkartu baitzen Kilometroetan. Zifrarik eman ez bazuten ere, “milaka eta milaka” lagun gerturatu ziren antolakuntzak jarritako 6,5 kilometroko ibilbidera. Zurriola hiribidea, adibidez, zabaldu egin behar izan zuten zenbait unetan, errepideko bi errail osorik hartuz.

Prestatutako sei gunetan zehar euskal gizartearen isla nabaritu zen: gazte, adineko, ume, makarra, pijo, iraultzaile, mendizale, kaletar,



Nafarroa Etorbidea jendez gainezka eguerdi partean, Kilometroak festara gerturatutako euskaltzale uholdea zela eta.

AURKENE MORA
ZURRIOLA IKASTOLAKO ZUZENDARIA

“Pozgarria da, hainbeste lan egin ondoren, honelako emaitza lortzea”

J. IMAZ

DONOSTIA. Komunikabideen galderak erantzun eta agintariei ongi etorria ematen nahiko lan izan zuen atzo Aurkene Morak, Zurriola ikastolako zuzendariak. Alai zegoen, hala ere, Kilometroak jaialdiak bildutako jendetza ikusita.

Nerbioiei ihes egiterik ba al dago horrelako hitzordu baten aurretik?

Pixka bat urduritu naiz, batez ere batetik bestera nabielelako. Gonbidatuak iristen dira, komunikabideei erantzun behar zaie... Baina ez da ezer gertatzen!

Nola antolatzen da tamaina honetako festa jendetsu bat?

Lana gogotik egin dugu. Aste hau, adibidez, oso gogorra izan da. Zoragarri aritu dira guraso, irakasle, boluntario eta gainontzeko guztiak eta eskertzekoa da.

Eguraldiaren aitzakiarik ez duzue izan aurten.

Eguzkia irten da. Arratsalderako lainoak espero ditugu, baina ez dago gaizki: bero handiegia ere ez zaigu komeni. Donostiak sortzen duen erakarpina kontuan izanda, jendez beteko da ibilbidea. Ilusio handia ematen du. Hainbeste lan egin ondo-

ren, pozgarria da honelako emaitza lortzea.

Anbizio handiko egitasmoa duzue esku artean.

Beharrezkoa da ematen diguten laguntza! Gaur biltzen duguna baina gehiago beharko dugu. Gure proiektuak egoitza berri bat eskatzen du. Duela sei bat urte prozesu batean sartu ginen eta, azkenik, Barandiaran Lizeoa eta Zurriola Ikastola batu egin ziren. Barandiaran Ibaetatik Grosera ekarri dugu eta orain beste egoitza bat behar dugu. Donostiarako oso garrantzitsua izango da.



Aurkene Mora.